

ZABBAALIK!

Koordinatu, antolatu, kudeatu!

DEIALDIAREN EZ AUGARRIAK

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateak ikasleei deialdi hau zabaltzen die ekimenak, hitzaldiak, ikastaroak tailerrak edota bestelako proposamen irekiak auzetu eta antola ditzaten. Gaur egungo arte-sormenaren edozein arloekin zerikusia izan behar dute.

Fakultateko ekimenen programazioan ikasleen parte-hartzea da helbururik nagusia eta ikaslearen inplikazioa bilatuko da antolakuntza eta kudeaketa lanetan.

Deialdi honek, gutxi gora behera, 3.000€ ko aurrekontua du. Aurrekontuak dagokion moduan egiaztatu behar dira eta barne sar ditzake gonbidatuen ordainsariak, alojamendua eta bidaiak.

Ikasle antolatzaileentzako ordainsaria onartuko da kudeaketa-lanak egitegatik, baina ikasleak ezin dira partehartzaile gonbidatuen parte izan.

Kudeaketa-lanak egitearen ordainsaria ez da ekimenaren aurrekontu osoaren %15etik pasatuko.

Proposatutako ekimenak 2019ko azaroaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra bitartean egin beharko dira.

PROPOSAMENEN KUDEAKETA

Proposamen bakoitzaren arduradunek zeharo kudeatuko dituzte proiektuak eta deialdi honen baldintzak betetzeko konpromezua hartzen dute.

Unibertsitate Hedakuntzarako Dekanordetzak proposamenak koordinatuko ditu (egutegia, hedapen digitala sare sozialetan eta web orrian, etab.)

Deialdian, modu banakoan edo kolektiboan, honako hauek parte hartu ahaliko dute:

- 1.- Arte Ederren Fakultateko ikasleak
- 2.- Arte Ederren Fakultateko ikasle ohiak, baina 1. puntuan adierazitako pertsona batek ordezkaturik.

Eskatzaile guztiek bete behar izango dute www.ehu.es/ehusfera/bbaa blogean dagoen inprimakia.

EKIMENEN AURREKONTUA

Proposamen guztiek aurrekontu zehatza barne hartu beharko dute, behean adierazten diru kopuruak aintzakotzat hartuz.

UPV/EHUko ordainketa aholkuak,

-EAEko hizlariak: 120€

-Estatuko hizlariak: 300€

-Hizlari atzerritik datozenak: 500€

-Tailerrak: 60€ orduko

-Adierazitako egoerei egokitzen ez den edozein formulak aurreko hauek kontuan hartuko beharko lituzke.

Aurrekontu zehatzean partehartzaileen garraioa, ostatua, bazkariak eta bestelako gastuak (materiala, ekoizpena, inprimategia, etab) adierazi beharko dira.

Bidaia eta hotelak UPV-EHUK hitzartuta dituen enpresekin egin beharko dira.

Emandako diruaren kudeaketa

- Unibertsitate Hedakuntzarako batzordeak onartuko duen diru kopuruak ekimenak gauzatzeko bakarrik erabiliko da. Ezin izango da beste kontzeptu batzuetan gastatu eta dagokion moduan egiaztatuko dira.

- Dekanordetzak ekimenen arduradunei fakturak egiteko beharrezko datuak emango dizkie hauek bideratu eta ordaindu ahal izateko.

EKIMENEN HEDATZEA

Unibertsitate Hedakuntzarako Dekanordetzak deialdian onarturiko ekimenen web-hedapena (posta zerrenda, sare sozialak, monitore digitalak) bakarrik hartuko du gainean. Beste hedapen medioetatik hedapena (kartelak, katalogoak, euskarri digitalak) egiteko balizko gastuak ekimen bakoitzaren erantzule ardurapean geratuko dira.

Onartutako proposamenen arduradunek, gutxienez 10 eguneko aurrerapenarekin, honako dokumentuak Unibertsitate Hedapenerako Dekanordetzari entregatzeko konpromezua hartuko dute:

- Ekimenari buruzko material grafiko eta digitala non "ZABBAALIK, Facultad de BBAA de la UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatea" leloa agertuko den.
- Izatekotan, proposamenarekin loturiko web estekak ekimena hedatzeko asmoz.

EPEAK

Deialdia 2019ko urriaren 28an astelehenean, amaituko da. Eskaerak, pdf formatuan (gehienez 1mb), ecultural.fac.bellasartes@ehu.es helbidera zuzenduko dira informazio honekin:

1. ZABBAALIK inprimakia
2. Proposamena egiten duen pertsona edo taldearen Cva
3. Proposamena, aurrekontu zehatza eta ekimena egiteko datak

Unibertsitate Hedakuntzarako Batzordeak eta Ikasle Batzordeak proposamenak aztertuko eta aukeratuko ditu.

Deialdi honetan parte hartzeak balditza hauek onartzea dakar aldera.

